# EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO ETA JABEKUNTZARAKO ESKOLA



## 2013/14 IKASTURTEAREN OROIT-IDAZKIA

Berdintasunerako Zerbitzua
Vitoria-Gasteiz, 2014ko abuztua



BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA – Santa Maria kalea, 11 / ☎ 945.16.13.45 / ✉ igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org / www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna



## 2013/14 IKASTURTEAREN OROIT-IDAZKIA

| 2013/14 IKASTURTEAREN HASIERA | | | |
|---|---|---|---|
| **HASIERA** | **DATA** | **TALDEA** | **HIZK.** |
| **Hasiera eta aurkezpena:** Encina Serrano Iglesias (Berdintasunerako Zerbitzuko zinegotzi-ordezkaria) eta Zuriñe Elordi Romero (Berdintasunerako Zerbitzuburua).<br>**Txostena:** "Emakumeen jabekuntza: hausnarketa feminista bat". Teresa Maldonado Barahona.<br>**Lantegien aurkezpena:** Prestatzaileak.<br>**Klownklusioak:** Viriginia Imaz Quijera.<br>**Kontzertua:** Virginia de la Casa. | 2013.09.17 | Herritarrak | G/E |

| HITZALDIAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **HITZALDIA** | **HIZLARIA** | **MODERATZAILEA** | **DATA** | **TALDEA** | **HIZK.** |
| Zergatik hartu behar dute parte emakumeek hirien eta herrien diseinuan? | Isabela Velázquez Valoria | Zuriñe Elordi Romero | 2013.10.01 | Herritarrak | G |
| '50 sombras de Grey" eta beste literatura fenomeno batzuk. | Josune Muñoz San José | Begoña Etayo Ereña | 2013.10.02 | Herritarrak | G |
| Emakumeak munduko bake-prozesuetan: pentsamenduak eta praktikak. | Carmen Magallón Portolés | Gema Celorio Díaz | 2013.10.22 | Herritarrak | G |
| Etxe-kaleratzeak zuzenean bizi: genero-begirada bat. | Cristina Fallarás Sánchez | Mª José Lecertua Goñi | 2013.11.12 | Herritarrak | G |
| Herritarren inplikazioa: emakumeen aurkako indarkeria sexistaren kontrako antidoto eraginkorra. | Mª Antonia Caro Hernández | Ana Soto Pérez | 2013.11.21 | Herritarrak | G |
| Emakumezkoen sexualitate-ereduak: estigmatik onarpenera. | Dolores Juliano Corregido | Paca Robles Martín | 2013.12.10 | Herritarrak | G |
| Emakume musulmanak: mendebaldeko estereotipoak *versus* gizarte errealitatea. | Maya Amrane Hajar Samadi Samadi | Estitxu Pereda Sagredo | 2013.12.17 | Herritarrak | G |
| Bertsolaritza: begirada feminista bat. | Uxue Alberdi Estibaritz | Yolanda Viadero Villanueva | 2014.01.20 | Herritarrak | E |
| Emakumeak baino gutxiago: gorputzaren diskurtso arau-emaileak feminismoaren eta desgaitasunaren bidez. | Melania Moscoso Pérez | Silvia Apodaka Arrizabalaga | 2014.04.02 | Herritarrak | G |
| Iraganetik etorkizunera euskararen bidetik. Hausnarketa bat generoaren ikuspegitik. | Jose Miren Hernández García | Yolanda Viadero Villanueva | 2014.05.07 | Herritarrak | E |
| Internet eta sare sozialak jabekuntzarako. | Montserrat Boix Piqué | Verónica Fernández Ramos | 2014.06.04 | Herritarrak | G |

| "BERDINZINEMA" ZINEFORUMA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **FILMA** | **ZUZENDARIA** | **DINAMIZATZAIL** | **DATA** | **TALDEA** | **HIZK.** |
| Violeta se fue a los cielos. | Andrés Wood | Helena González Estévez | 2013.10.31 | Herritarrak | G |
| Joven y alocada. | Marialy Rivas | Helena González Estévez<br>June Fdez.Casete | 2013.11.28 | Herritarrak | E |
| Inch' Allah. | Anaïs Barbeau-Lavalette | Helena González Estévez | 2014.01.23 | Herritarrak | G |
| Wadja (Bizikleta berdea). | Haifaa Al Mansour | Helena González Estévez | 2014.04.24 | Herritarrak | G |
| Frances Ha. | Noah Baumbach | Helena González Estévez | 2014.05.29 | Herritarrak | E |
| Los insólitos peces gato. | Claudia Sainte-Luce | Helena González Estévez | 2014.06.12 | Herritarrak | G |

| "ORDU BIOLETA" IRAKURLE FEMINISTEN KLUBA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **IRAKURLE KLUBA** | **KOORDINATZAILEA** | **DATAK** | **IRAUPENA** | **TALDEA** | **HIZK.** |
| "Ordu bioleta" Irakurle Feministen Kluba | Begoña Etayo Ereña | 2013/14 Ikasturtea (hilabetean behin) | 18:00 | Emakumeak | G |

| AUTODEFENTSA FEMINISTA EMAKUMEENTZAT | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **LANTEGIA** | **PRESTATZAILEA** | **DATAK** | **IRAUPENA** | **TALDEA** | **HIZK.** |
| Autodefentsa feminista emakumeentzak. | Maitena Monroy Romero | 2013ko urriak 4 eta 5<br>2013ko azaroak 5, 7, 12, eta 14<br>2013ko azaroak 29 eta 30<br>2013ko abenduak 13 eta 14<br>2014ko urtarrilak 17 eta 18<br>2014ko otsailak 14 eta 15<br>2014ko martxoak 21 eta 22 | 12:00 ordu lantegi bakotiza<br><br>Orduak guztira: 84:00 ordu | Emakumeak | G |

| LANTEGIAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **LANTEGIA** | **PRESTATZAILEA** | **DATAK** | **IRAUPENA** | **TALDEA** | **HIZK.** |
| Jendaurrean hitz egiteko teknikak. | Miriam Ocio Saenz de Buruaga | 2013ko urriak 2tik azaroak 13ra | 16:30 | Emakumeak | G |
| Emakumeen jabekuntza: esanahiak, estrategiak eta adierazleak berrikusi. | Clara Murguialday Martínez | 2013ko urriak 8tik 17ra | 11:00 | Emakumeak | G |
| Kultura, generoa eta giza garapena. | Adrina Kaplan Marcu-sán | 2013ko urriak 21 | 4:00 | Herritarrak | G |
| Jendaurrean hitz egiteko teknikak. | Esti Redondo Tirado | 2013ko azaroak 7tik 16ra | 16:30 | Emakumeak | E |
| 'Burnt Out' sindromea. Higadurari aurre egin. | Inma Merino de Cas-tro | 2013ko azaroak 15 eta 16 | 8:00 | Elkarteetako emakumeak | G |
| Indarkeriari atearen azpitik pasatzen uzten diogu? | Inma Merino de Cas-tro | 2013ko azaroak 20tik abenduak 4ra | 6:45 | 55 urtetik gorako ema-kumeak | G |
| Posta elektronikoa erabiltzea eta interneten oinarrizko erabilera. | Mentxu Ramilo Araujo Erika Martín Ugarte | 2013ko abenduak 11tik 19ra | 11:00 | 55 urtetik gorako ema-kumeak | G |
| Ipuinen arnasketa. | Virginia Imaz Quijera | 2013ko abenduak 20tik 2014ko urtarri-lak 11ra | 24:00 | Herritarrak | G |
| Zaintzea kostatzen da! Derrigorrezko zaintzarekiko intsumisioa. | Dominique Saillard Bouyssié | 2014ko urtarrilak 22 | 4:00 | Emakumeak | G |
| Beste begirada batzuk posible dira: transgeneroak eta sexu-aniztasuna. | Inmaculada Mujika Flores | 2014ko urtarrilak 24 eta 25 | 5:30 | Herritarrak | G |
| Nire identitatea ez dago salgai! Berezko identitateari eusteko eta hori sortzeko moduak. | Beatriz Luz Asensio Isabel Piqueras Bar-tolomé | 2014ko urtarrilak 29 eta 31 | 5:00 | 18 eta 30 urte bitarteko emakumeak | G |
| Posta elektronikoa erabiltzea eta interneten oinarrizko erabilera. | Mentxu Ramilo Araujo | 2014ko apirilak 3tik 11ra | 12:00 | 55 urtetik gorako ema-kumeak | G |
| Feminismoa perspektiban. Gure historia berreskura-tzea. | Gladys Giraldo Ve-lásquez | 2014ko apirilak 10etik ekainak 5era | 17:30 | Emakumeak | G |
| Generoa, lidergoa eta adimen emozionala. | Miriam Ocio Saenz de Buruaga | 2014ko maiatzak 6tik ekainak 3ra | 17:30 | Emakumeak | G |
| Jendaurrean hitz egiteko teknikak. | Esti Redondo Tirado | 2014ko maiatzak 9tik 17ra | 24:00 | Emakumeak | E |

## LANTEGIAK

| LANTEGIA | PRESTATZAILEA | DATAK | IRAUPENA | TALDEA | HIZK. |
|---|---|---|---|---|---|
| Zapalduaren antzerkia. | Belén Nevado Méndez | 2014ko maiatzak 17 eta 18 | 12:00 | Emakumeak | G |
| (Nire burua) zaintzen Ikasi. | Inma Merino de Castro | 2014ko maiatzak 23 eta 24 | 8:00 | Emakumeak | G |
| Emakume beltzak Euskadin: identitateak eta ahalduntzea. | Jeanne Rolande Dacougna Minkette | 2014ko maiatzak 30 eta 31 | 8:00 | Emakumeak | G |
| Genero indarkeriaren aurkako osoko legearen benetako ezarpenaren azterketa, gisa eskubideen ikuspegitik. | María Naredo Molero | 2014ko ekainak 6 eta 7 | 8:00 | Herritarrak | G |
| Emakume baztertuak eta marjinalak: gizarte bazterkeria eta marjinazio prozesuei buruzko hurbilpen teoriko bat. | Dolores Juliano Corregido | 2014ko ekainak 11 | 4:00 | Herritarrak | G |

## TALDE JAKIN BATZUENTZAKO LANTEGIAK

| LANTEGIA | PRESTATZAILEA | DATAK | IRAUPENA | TALDEA | HIZK. |
|---|---|---|---|---|---|
| Norberaren eta taldearen jabekuntzarako lidergo-gaitasunak. Coaching ikuspegitik egindako hurbilketa. | Maru Sarasola Anzola | 2013ko urriak 7tik azaroak 4ra | 15:00 | Emakumeen elkarteak | G |
| 'Hirigintza plangintza genero-ikuspuntuarekin' gaiari buruzko hausnarketak eta proposamenak egiteko eremua. | Ane Alonso Méndez<br>Koldo Telleria Anduela | 2013ko urriak 18 eta 19 | 8:00 | Herritarrak | G |
| Bizitza… begi-kliska bat da. 'Hechos son amores'. Film laburraren bidez hausnartzea. | Nora Miñán Nobs<br>Mª Antonia Caro Hernández | 2013ko azaroak 22 | 4:00 | Gizarte Langintzako Eskolako ikasleak | G |
| | | | 4:00 | 14 urtetik gorako gazteak | G |
| Emakumeen jabekuntzarako proiektuetan lidergoa egin. | Maru Sarasola Anzola | 2014ko maiatzak 12tik ekainak 16ra | 18:00 | Emakumeen elkarte eta taldeak | G |

| TALDE JAKIN BATZUENTZAKO LANTEGIAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **LANTEGIA** | **PRESTATZAILEA** | **DATAK** | **IRAUPENA** | **TALDEA** | **HIZK.** |
| "Etzak lo hartu" Antzerki-Foruma. | On:Giz Berdintasunerako Elkartea eta Ander Azurmendi Ormazabal | 2014ko maiatzak 28 | 2:30 | 18 eta 30 urte bitarteko gazteak | E |
| Hirritaren eskubideen defentsarako ziberfeminismoa. | Montserrat Boix Piqué | 2014ko ekainak 3 | 3:00 | Elkarte eta taldeetako emakumeak | G |

| 2013/14 IKASTURTEAREN AMAIERA | | | |
|---|---|---|---|
| **AMAIERA** | **DATA** | **TALDEA** | **HIZK.** |
| **Amaiera eta aurkezpena:** Iñaki García Calvo (Berdintasunerako Zerbitzuko zinegotzi-ordezkaria) eta Zuriñe Elordi Romero (Berdintasunerako Zerbitzuburua).<br>**Txostena:** "Emakumeen ahalduntzea: hausnarketa feminista bat". Dolores Juliano Corregido.<br>**Emanaldia:** Saioa García. *La Omega Rapera*. | 2014.06.13 | Herritarrak | G/E |





## PARTE-HARTZAILEEK ZER BITARTEKOREN BIDEZ IZAN ZUTEN LANTEGIEN BERRI




Lantegietan parte hartu duten pertsonen %27k beste pertsona batzuen bidez izan du lantegien berri. Komunikabideen artean, halaber, informatzeko liburuxka (%20), Berdintasunerako Zerbitzuak posta arruntez edo elektronikoz bidalitako informazioa (%19) eta udalaren webgunea (%15) nabarmendu dira.

## EUSKARRIAREN ARABERAKO JARDUERAK

Eskolako jarduerak zenbait euskarritan aurkezten dira: hitzaldiak, zineforuma, irakurle kluba, norberaren defentsarako lantegiak, lantegiak eta talde jakin batzuentzako lantegiak. Hitzaldiak eta zineforuma herritar guztientzat da eta edonor sar daiteke. Irakurle kluba, norberaren defentsarako lantegiak eta beste zenbait lantegi emakumeentzat dira, eta beharrezkoa da izena ematea. Bost lantegi herritar guztientzat ireki dira. Eta amaitzeko, badago “Beste jarduera batzuk" izeneko euskarri berria, eta oso espezifikoa denez, talde jakin batzuentzat da. Grafikoan ikus daiteke lan-euskarri bakoitzak zer nolako garrantzia duen programan sartutako gainerako jarduera guztiekiko.



## LERRO ESTRATEGIKOAREN ARABERAKO JARDUERA

Eskolako jarduerak, gainera, lerro estrategiko batzuen arabera antolatu dira: genero-ikuspuntua sartzea; feminismoa; identitatea, subjektibotasun femeninoa eta balore-aldaketa; emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea; kultura-aniztasuna eta elkartasuna; gizarte-antolaketa ardurakidea; kultura birdefinitzea; eta komunikazioa eta gaitasunak. Feminismoaren inguruko lerro estrategikoan egin dira jarduera gehiago (%35); ondoren, komunikazio eta gaitasunak (%15) eta identitatea, subjektibotasun femeninoa eta balore-aldaketakoa (%13).




## JARDUERAREN ARABERA IZANDAKO PARTE-HARTZEA




Eskolako jarduera guztien parte-hartzea 1.557koa da. Ezin izan da aintzat hartu parte-hartzaileek jarduera batean baino gehiagotan hartu duten parte edo ez; beraz, emandako zenbakia bertaratze kopuruari dagokio, ez pertsona kopuruari. Hitzaldiek lortu dute parte-hartze handiena: 733, 13 hitzaldietan. Bestalde, zineforumak 337 pertsona bildu ditu. Gainontzeko pertsonek (487) irakurle klubean eta lantegietan hartu dute parte. Bost lantegi ezin izan dira gauzatu izena emandakoen kopurua txikia izan delako.





## EMAKUMEENTZAKO ETA GIZONENTZAKO JARDUERETAN SEXUEN ARABERA IZAN DEN PARTE-HARTZEA

Eskolak baditu emakumeentzat soilik diren zenbait jarduera, eta beste batzuk, aldiz, herritar guztientzat dira. Herritar guztientzako jarduerak ondokoak izan dira: hasierako eta amaierako ekitaldia; hitzaldiak; zineforuma, eta “Kultura, genero eta giza garapena”, “Ipuinen arnasketa”, “Beste begirada batzuk posible dira: transgeneroak eta sexu-aniztasuna”, “Genero indarkeriaren aurkako osoko legearen benetako ezarpenaren azterketa, gisa eskubideen ikuspegitik”, “Emakume baztertuak eta marjinalak: gizarte bazterkeria eta marjinazio prozesuei buruzko hurbilpen teoriko bat”, “Hirigintza plangintza genero-ikuspuntuarekin”, “Bizitza begi-kliska bat da. Ekintzak maitasuna dira” eta “Etzak lo hartu” lantegiak. Jarduera horietan parte hartu duten gizonen kopurua %15 dela kalkulatu dugu, eta emakumeen kopurua, berriz %85 da.




## ESKOLAKO LANTEGIETAN ADINAREN ARABERA IZAN DEN PARTE-HARTZEA







Gazteentzat lau lantegi programatu dira: “Nire identitatea ez dago salgai”, “Bizitza begi-kliska bat da. Ekintzak maitasuna dira” lantegiko bi edizio, eta “Etzak lo hartu” antzerki-foruma. Gainera, 55 urteko eta hortik gorako emakumeentzat hiru lantegi antolatu dira: “Indarkeriari ateraren azpitik pasatzen uzten diogu?" eta “Posta elektronikoa eta Interneti buruzko oinarrizko erabilera” lantegiko bi edizio.

Lantegiak guztira aintzat hartuta, adinaren araberako parte-hartzea ondokoa izan da: %37, 16 eta 30 urte bitartekoa da; %44, 31 eta 54 urte bitartekoa, eta %19k, 55 urte edo gehiago ditu. Emakumeei dagokienez, 31 eta 54 urte bitarteko emakumeak dira gehien parte hartu dutenak (%46). Gizonei dagokienez, 16 eta 30 urte bitartekoak (%76). Kolektibo honetan, azpimarratu behar da 55 urtetik gorako gizonik ez duela parte hartu lantegietan.



## ESKOLAKO LANTEGIETAN LEHENDABIZIKO ALDIZ PARTE HARTU DUTEN PERTSONAK




Ondoko datua oso garrantzitsua da: Eskolako lantegietan lehendabiziko aldiz parte hartu duten pertsonen kopurua. Aipatu beharra dago Eskolako lantegietan lehendabiziko aldiz parte hartu duten pertsonen kopurua oso handia dela, %49,5, hain zuzen ere. Bestalde, %50,5k aurretik parte hartu du, baina berriz eman du izena edizio honetako lantegien batean.

## PERTSONEK LANTEGIETAN PARTE HARTZEKO IZAN DITUZTEN ARRAZOI NAGUSIAK




Lantegietan parte hartzeko arrazoien artean, elkarteko kide ez diren baina edukiekiko interesa duten pertsonak dira nagusi (%33). Hurrengo taldean, elkarteko kide direnak (%15) eta arrazoi pertsonalengatik (%15). Gutxiago badira ere, lan-kontuengatik, harremanak eduki nahi izateagatik eta ikasketa kontuengatik.

## LANTEGIETAN PARTE HARTU DUTEN PERTSONEN BALORAZIOA

Jarraian, Irakurle klubean eta lantegietan parte hartu duten pertsonen gogobetetasun-maila aipatuko dugu. Gogobetetasun-maila 1 eta 6 arteko eskalan neurtu dugu, eta ondoko itemak baloratu ditugu: lantegiaren programa eta edukia, metodologia, dokumentazioa, parte-hartzea eta taldeko giroa, prestatzailea, informazioa eta tratua, antolaketa, ordutegia eta iraupena, aretoa, haurtzaindegia eta lantegiaren balorazio orokorra. Ikus dezakezuenez, item bakoitzaren gogobetetasun-maila handia edo oso handia da. Irakurle klubaren balorazio orokorra 5,8 da eta lantegiek 5,5 izan dute.










## IRISGARRITASUNERAKO ETA KONTZILIAZIORAKO ZERBITZUAK

### ZEINU-MINTZAIRAKO INTERPRETEA

Eskolak Zeinu-mintzairako Interpretearen Zerbitzua eskaini du hasierako eta amaierako ekitaldirako, hitzaldietarako eta zine-forumerako. Zerbitzu hori bitan erabili da. Oso interesgarritzat jo dugu baliabide hori eskaini izana, baina ezin da gogobetetasun-maila neurtu, sarrera libreko jardueretarako eskaini baita.

### HAURTZAINDEGIA

Bestalde, Eskolako jarduera guztietarako haurtzaindegia eskaini dugu, eta bederatzi jardueratarako erabili da. Zerbitzu hori edukitzea oso mesedegarritzat jo da, eta lantegietan parte hartzeko baliabide hori erabil dituztenek oso balorazio ona egin dute zerbitzu horren inguruan.

## ESKOLAK JASO DUEN UDALAREN BARNEKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

### UDALAREN BARNEKO LANKIDETZA

Eskolak, laguntza handia jaso du udaleko Sail eta Zerbitzu batzuengandik. 2013/14 ikasturtean ondokoen laguntza izan du: Adinekoen Zerbitzua, Euskara Zerbitzua, Gazte Zerbitzua-Gauekoak, Gizarte Etxeen Zerbitzua, Gizarte Gaien eta Adinekoen Saila, Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua, Hirigintza Sailaren Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorra Berrikusteko Bulegoa, Informazio Teknologien Saila, Montehermoso Kulturunea, Norabide/Kulturartekotasunaren Atala eta Udal Liburutegien Sarea.

### ERAKUNDE-ARTEKO LANKIDETZA

UPV/EHUko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolak (Arabako Campusa), “Bizitza begi-kliska bat da. Ekintzak maitasuna dira” lantegia antolatzen lagundu du; horretarako, lantegiaren edizioetako bat Unibertsitate Eskolan bertan egin dute eta bertako ikasleei zuzenduta zegoen.

